

«AURREN IZKUNTZA»

Euzkal-irazkintza, benetako irazkintza izateko, etzan esateko bearrik, euzkal-gogoz beterik ikusi bear da. Orrela dala-ta, egiazko euzkal-gogoa agerrerazten duten azpegi guztiak begiratu ta aztertzeo izango ditugu.

Irazkintzari buruzko asmo orokorrak, edonolako gogolantzeari dagozkionak ikusteko ta erabiltzeko egokiak izango dira beti, zalantzik gabe; baña Erri bakoitzeko gogolantzea ere, bera dan bezela artzean, aintzakotzat artu bear da, berarentzako ona izan ditekera irazkintza bereziki zedarriturik izan dezagun.

Gaurko gure lantxo ontan, naiz euzkal-irazkintzari naiz euzkal-gogoari dagokien azpegi bat nabari-erazi nai dugu, geron ustez, bere garrantzia aipagarria dalakoan, eta gaurko euzkal-ikastoletan erabiltzekoa dan gai egokia izango dala argi agertzen zaigulako.

«Aurren izkuntza» da azpegi berezi ori, ots, aurrek eta berekin mintzatzen diran adiñeko notiñek ere, ain zuzen, aurrai gauzak eta asmoak obeto ta errazago ulerrerazteko, erabiltzen duten izkuntza bedegarra. Noski, aurren bizian naiz notiñak naiz abere ta gauzaen asmoak, beren adimenaren neurrian agertzen dira, ta zabaltzen asten dan adimen orren almenaz bakarrik ikusten eta begiratzen dituzte aurrek.

Euzkal-gaietan ainbeste sakondu zuen Azkue jaunak «aurren izkuntza» be aztertu zuen, eta «Euskalerrriaren Yakintza» deitzen dan bere idaztian, irugarren ige kian (343'gn. orrialden) gai orri buruzko asmo egoki ta polit batzuk aipatzen dizkigu.

Wilhelm Wundt yakintsu doistarrak bere idazti batean ematen dituen irakaspenak jasotzen ditu gure apaiz ospetsuak bere lana asteko. Yakintsu orrek aur batzuekin urte batzuetan barna yardun zuen aurren berezitasunak jasotzeko. Aur aiek ere doistarrak ziran, eta oartutako itz bereziak eta laburpenak naiz aldakuntzak aur aien aoetan, aur doistarren aoetan, entzunak izan ziran. Apika, bat edo beste edonungo aurrari zegozkien, baña geyenak dositarrai bereziki; ta, dana dala, naiz ikerlea naiz berak entzundakoak doistarrak ziran: orrengatik doistarrak bezela artu ditzakegu arek entzundako itz eta asmo guziak.

Oietako batzuk aipatzean, Azkue'k euzkal-berezitasun batzuk ematen ditu; esate baterako: Euzkal-aurrek *t* ta *k* izkiak dituzten itzak erabiltzen bide dituzte asko, baña izki oien soñu bigunak ematen dituzten *d* ta *g* «bat ere ez» diño gure apaizak.

Beste aldetik, gure aurrek, itz askotan, aots ñogarriak erabiltzen dituzte, onela edo: «llalla», «lelle», «lollo», ..., «ñaña», «ñiñi», «ñuñu», ..., «ttaka-ttaka», «ttalital» eta abar.

Batzuetan, aurrek adiñekoen itzak ondo ezagutzen ez edo dituztelako, berai mintzatzeko aots ñogari batzuk ere erabiltzen dira; esate baterako: «bero»'ren ordez «bello», «eri»'ren ordez «elli», «lo-egin» asmoa adierazteko «lollo» esaten bide zaizkie.

Aipatzekoa dan beste berezitasuna, auxe, Azkue'k ere diñoenez: Aurrek ez bide dute mugitarik erabiltzen, eta beren itzak mugatugabeak izaten dira: esate baterako: «anai»'aren ordez «atto» diñote, bein ere ez «attoa»; «arrautz»'aren ordez «koko» entzuten da aurren ezpañetan, iñoiz ere ez «kooka».

Ba-dira beste itz bereziak, aurrari dagozkienak, auek bezela, ta aurrari itzegiteko adiñekoek ere erabiltzen dituztenak: «txiz» edo «piz», «garnu»'aren ordez; «kaka», «gorotz»'aren ordez; «tu» edo bere ñogarriak diran «ttu» ta «txu», «txistu» edo

«listu»'aren orde; «aña» ere «aurzain» edo «seinzain»'aren orde.

Beraz, oso zabala dugu «aurren» izkuntza, ta bere azpegi batzuk gaurko ontan galduta edo dauzkagu; ez ote litzake egokia izango oietako alik eta geyenak jaso, bildu ta gure euzkal-ikastolaetan erabiltzeko sartzea? Araba'ko «Euzkerazaleak», «Udaberria» bazkunean alkaturik dagozenak orrela usteizan dute, ta Azkue'k esandako bere idaztian aipatzen dituenak jaso ditu ta argitaratu duten idaztiño batean eman nai dituzte, ain zuzen, ikastolaetan erabilli al ditezken.

Idaztiño ortan be, geigarri bezela, Azkue'k berak ere idazti berean aipatzen dituen «Aokorapilloak», «Goitzenak» eta «Igar-kizunak» ematen dira; ta azkenez, Azkue'ren iztegian eta beste idazkietan ezagun-erazten diran «aurren jokoak» ere aipatu ta nolakoak diran jakin eragiten dituzte.

Geron ustez, oso lan polit eta egokia izango da oraintxe atera dan idaztiño ori; bere egilleak ikastolaetan barna banatu nai dute, ta ustekoa da andereño eta irakasleen aldetik oso onartua izango dala.

Orrela, gure ikastolaetako lana euzkaldunagoa izango litzake, ta bide batez gure berpizkundean urrats oso egokia eman liteke. Aurren itz bereziak berak ikastola guztietan erabiltzean, beren lanari batasun oso ona emateko ere bide egokia izango genuke; ta azkenez, gure euzkal-irazkintza be nabarituagoa izango zan, egin-egiñean, euzkaldunagoa izango litzakelako.

Era berean, euzkal-gogoa ere indartuago ikus liteke, bera «aurren itzetan» azaltzen danez agertzean. Eta gure euzkal-gogoari eustea gure elburu beñena izan bear danezkeru, orra orixe lortzeko bide aukerakoena.

Len eta beste askotan esan dugunez, bear-bearrezkoa izan bear guretzat elburu ori irixtea, ezinbestekoa baita gure Erri'aren biziari ere eutsi alizateko. Alakotz, euzkal-biziarentzat lan, asmo ta urrats guziak alik eta euzkaldunenak izan bear ditugu, beste guziak, esan bearrik ez, gure Erri'aren bizirako kaltegarri ta aurkakoak diralako.

Jakiña, esan dugun elbururako gure ekintza guziak euzkal-

dunak oso izan bear baldin badira, euzkera gure izkuntza au be bera dan bezela erabilli bear dugu beti. Oso oker aundia izango litzake euzkera gure erraztasun eta aisatasunerako mal-gutu nai-izatea: geu gera bere izakerari geron buruak makurtu bear dugunok; euzkera, beti, bera dan bezela artzean.

Orixe izan bear da guretzat, euzkaldunontzat, jokera bereziena ta bearrena. Euzkerak bizi bear baldin badu, ta gure Erri'ak ere euzkalduna beti irauteko, eztago beste biderik, ezin besterik izan. Oso gaizki jokatu da geyen-geyenetan gure Erri'aren adesti guzian, euzkeraren eta euzkal-biziarekiko, gureak utzi ta besteen bideetan barna ibilli nai-izatean; ortaz, zabarkeri oso aundia agertzen da, sarritan, gure izkuntza ta gure euzkal-bizia aintzakotzat ez artzean.

Gure berpizkundean, nai ta nai ez, aurreruntz abiatuta gagoz, baña abiatze ori ondo zuzenduta izan bear da, bitxikeri guziak alboratzean eta elburu ta bidea zentzun aundienez ikus-tean. Ez dugu aitzu bear ere naiz gure izkuntzan naiz gure Erri-an indar oso berezi ta aundia dagoela; osterantzean, ain-beste jazarturik izan ondoren, nola ulertu gaur arte bizi-bizirik iraua dutenaren egipena?

Geron aldetik, gaur, euzkal-irazkintza ta euzkal-gogoari da-gokien azpegi berezi bat nabari-erazi nai-izan dugu: «Aurren izkuntza», bereziki eukal-aurren izkuntza; ori euzkal-irazkin-tzan bete-betean ikusi bear dala uste dugu, ta benetan orrela dalakoan, gogo biziiaz agerreraztzen dugu emen. Ia ikastola guzietan barna oso zabaldua ikusi al ote dan, oietatik uzta yoriagoa jaso al-izateko.

Urtubia